

Q sukarra izeneko infekzioa Tratamendu Mekaniko eta Biologikoko Plantara iritsi da, ardien eta ahuntzen hondarrak plantako hondakinak kudeatzeko sistemak sartu baitira.

Eusko Jaurlaritza eta Bizkaiko Foru Aldundia elkarrekin lan egiten dihardute, Q sukarraren brote epidemikoak kontrolatzeko asmoz. Osasun publikoko arazoa da, eta dagoeneko zenbait prebentzio-neurri hartu dira beraren aurka. Abian jarritako jarduketak informazio eta prebentzio ekintzak, higiene eta garbiketa ekintzak, eta lan prozedurako ekintzak dira.

TMBko langile talde batek infekzioa hartu du (8 berretsita). Brotearen jatorria da gizakien kontsumorako egokiak ez diren animalia-jatorriko hondarrak (ahuntz eta ardien subproduktuak, adibidez buruak, larruazalak etab) plantan sartu direla behin beta berriro hiri hondakinen artean.

Infekzioaren lehenbiziko kasuak erregistratu zirenetik, TMB-Arraiz UTEak (Valoriza eta Pabisa enpresek eta Garbiker foru enpresa publikoak osatuak) arazoa erakunde eskudunei jakinarazi zien, hau da, Osalari, Laneko Segurtasun eta Osasun Euskal Institutuari, eta Osasun Saileko Epidemiologia Unitateari, badaezpadako neurriak har zitzaten.

Era berean, Eusko Jaurlaritzak eta aldundiaren Nakazaritza eta Ingurumen Sailak neurriak zorrozteak eta analitikak plantilla osoari eta azpikontrataturako enpresa guztiei egitea erabaki du, badaezpada.

Jokabide okerren salaketa

Aldundiak salatu duenez, gizakiek jateko ez diren animalia-jatorriko hondakinak hiri hondakinen bilketa sistemara botatzeko ohitura txarrak sortu du TMBko brote epidemikoa. Une honetan jatorria identifikatzen ari gara. Hori zaila da, animalien hondarrak zabor-poltsetan iritsi direlako eta belarritakoak kendu zaizkielako; beraien trazabilitatea ezinezkoa da.